

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2011ko martxoaren 1a. VIII. urtea. 2.182. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Urrezko mailan zilarrarekin itzuli da etxera Anjel Arrospide

Azpeitian jokatu dira binakako aizkora txapelketako finalak; Mikel Zabaleta leitzarrak garaipena lortu du Gaztetxoan mailan **07**



Otañorekin bikotea osatuz, Zabaletak txapela jantzi Gaztetxoetan. HITZA



SARA COMEZ

→ 'Ijitoa' errez agurtu dituzte Lizartzako Inauteriak.

Tolosako Inauteriak gainean diren honetan, Berastegin eta Lizartzan agur esan diote mozorroen jaiari. Azken honetan, igandean amaitu ziren ospakizunak, dantzariak, herri bazkaria, karaokea... eta nola ez, 'ijitoaren' erreketarekin. **03**

Elkarlanean jarraitu beharra dagoela esan dute AHTren aurkako eragileek

AHT Gelditu! Elkarlanak deituta manifestazioa egin dute Tolosan **03**

Tolosako Inauterietan jaiak ez du etenik izango txosnagunean

Txosna Batzordeko kideak ez daude «gustura» leku berriarekin, Euskal Herria plazatik Alondigara eraman baitituzte **03**

Emakume baseritarren eskubideak aldarrikatu dituzte

Bilgune Feministak eta Ebelek salatu dutenez, euren egoerak okerrera egin du azken urteetan **02**



Tolosako inauterietako
Txupinazoa zuzenean
www.tolosaldea.hitza.info
webgunean



Osteguna, martxoak 3
12:00etan





Zerkausian egin zuten agerraldia, larunbat goizean. HITZA

Emakume baserritarrak «langile ikusezinak» bilakatu direla salatu dute

Bilgune Feministak eta Emakume Baserritarren Elkarteak ekimen bateratua aurkeztu dute

Erredakzioa

Pasa den larunbatean, Bilgune Feministak prentsaurrekoa egin zuten Emakume Baserritarren Elkartearekin batera, emakumeen lan-egoera duina aldarrikatzeko eta prekarietatea salatzeke, *Feministok, prekarietateari planto! Bizitza duinera salto! Gure borroka ez dago krisian!* lelopean.

«Emakume baserritarraren problematika zabal» dela diote, eta «belaunaldi berrietan arazo zenbaiti aurre egiten» ari diren arren, kolektibo bezala euren egoerak txarrerara egin duela nabar-

menu zuten agerraldian. Joan den urtarrilaren 27ko greba orokorrean «emakume baserritarren egoera ere kaltetuko duten neurri berriak» salatzen irten ziren kalera, eta bide honetan, 90. hamarkadatik aurrera EHNETik baserrian lan egiten duten emakumeen lan-egoera hobetzeko egindako lana ekarri zuten gogora. Besteak beste emakume hauek kotizatzen hasteko izan zituzten arazoak aipatu zituzten, «gizarte segurantzian alta emateko jartzen zitzaizkien oztopoak» zirela eta. Beraz, neurri eta murrizketa berriekin «lortu duten guztia lapurtu» egingo dietela salatu nahi izan zuten, emakume baserritarren lan-egoera hobetzeko baldintza zenbait eskatuz: emakumeak ekonomiaren subjektu izateko lanerako eskubideak izan behar duela oinarritzko; gutxieneko diru-sarrerak izateko

eskubidea, eta baita etxebizitza oinarritzko eskubidea den alde-tik, erakunde publikoek hori bermatzea ere.

Inauterietako aldarria

Aurtengo Emakumeen Nazioarteko Egunak Inauterietako Asteartarekin bat egingo du, eta Tolosako Bilgune Feministako partaideak *Ramos Azkarateren alaba gaiztoak* izango dira. Gal-tzaundiren bertsoen egileak emakumeen aurkako hitz batzuk idatzi zituen, eta hori oinarri hartuta, *Alaba Gaiztoen* bertsoa eta oihua zabalduko dute.



Gutunak

Amorrazioa

lazko abenduaren 23an, goizeko 11:45 aldera, Larramendiko zubia zeharkatzen ari nintzen. Hautsitako baldosa batzuekin tupust egin eta lurrera erori nintzen. Udaltzaingoaengana joan eta eurek gertatua apuntatu zuten. 15 minutura, gutxi gora behera, garabia daraman koxtea bertara gerturatu zen. Udaltzaingo batek kolpe hartu nuen lekuaren argazkiak atera zituen. Hurrengo egunean, belaunean nituen hematoma ikusirik, anbulatorioko urgentzietara joan nintzen. Bertan jasotako agiria ondoren, Udal-



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

O hetik jeiki nintzenez eta galtzerdiak janztean, neure oinei begira geratu nintzen. Ezertarako ez diren hamar behatz, orpo handi borobil eta sendo bat, atzazal ahul batzuk...

Gero neure eskuei begiratu nien, heltzeko balio duten hamar hatz mugikor, atzazalak... Kontxo! Oinen antz apur bat badute.

Baina diotenez, gure Lur planetak aldaketa klimatiko bat pairatu zuen eta zure eta nere arbaso haiek, oihaueko zuhaitzak nola desagertzen ziren ikusi zuten.

Urte gutxitan oihauek ez zuten hain dentsua, lehorrakoa zen, zuhaitz kopurua gutxitu zen, gero eta zailagoa zen zuhaitz batetik bestera salto egitea eta lurrera jeitsi beharra zegoen zuhaitzez aldatzeko, ondorioz arrisksutsuagoa zen bizitzea.

Zuhaitzen desagertzearen ondorioz, oihauek poliki-poliki Afrikako sabana famatua bihurtu zen (dokumentaletako sabanaren antzekoa), zuhaitz solte batzuk tartean, eta belar ugaria eta oso luzea. Gure arbasoak ez ziren oso handiak, 60 zentimetro inguruko tximino txikiak ziren. Sabana honetan, udan belarrak metro baterainoko altuera hartzen zuten, beraz,

Bi hankaduna naiz eta harro nago

gure arbasoak lurrera jeisten baziren oso urrunera ezin zuten ikusi, belarrak estaltzen baitzuten ikuspegi guztia, hau da, ezin zituzten ikusi zetozen haragijaleak.

Baina gure arbasoak ez ziren inozoak, belarraren oztopo bisuala gainditzeko bi hanken gainean zutik ipintzen hasi ziren.

Honela belar luzearen gainetik ikusi ahal zuten, arriskuei ihes egitea errazagoa eginez. Eta hemen jarri zen martxan eboluzioaren torlojua.

Zutik errazago jarri eta postura honetan denbora gehiagoz mantentzen ziren arbasoek abantaila handiagoa zuten arriskuak ikusteko, hauek giza abantaila guztiak hiltzen ziren eta noski, kume gehiago izaten zituzten.

Zutik jartzeko erraztasun hau, gurasoetatik kumeetara igarotzen, gero eta zutik egoteko joera handiagoko tximinoak sortuz, hankak belaunaldietan zehar sendotuz, gero eta oinez ibiltzeko joera handiagoa ahalbidetuz, bi hankako arbaso bat sortu arte.

Eta honelaxe aitxa naiz ohetik, gustura, neure hankengatik oso harro, nahiz eta zenbait futbolarien hankak baino diru gutxiago balio duten... Harro nago beraitez!

Azken parrafo honetan bihotzez eskertu nahi diet bi astean behin irakurtzen nautenei, *bioaniztasunetik@hotmail.com*-era idazten didaten guztiei, aurrez aurre zoriontzen nautenei, <http://bioaniztasunetik.blogspot.com> bisitazten dutenei eta *facebook*-en lagun egin direnei. Guzti hauei esker lortzen baitu neure garunak hurrengo artikulua idatzeko erregaia! Aupa zuek!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

hau idazten ari naizen egun honetan, otsailaren 25a, oraindik hautsita daude. Nire galdera: Alkatearen edo zinegotziren baten amaxo erori izan balitz, konponduta egongo al ziren baldosak? Hauteskuondeak gertuago egongo balira, konponduta egongo al ziren baldosak?

Bestalde, udaletxeko inork ez dit deitu nola nagoen edo erorketa nola izan zen galdetzeko.

Besterik gabe, amorrazioz jarraitzen duen honek idazten du.
■ **Aurora Diez Mijangos**, Tolosa

AHT gelditzeko berandu ez dela aldarrikatu dute Tolosan

AHT Gelditu! Elkarlanak deituta manifestazioa burutu zen larunbatean, Trianguloatik irtenda

Tolosa-Hernialde zatian eta Adunan zundaketa lanak hastear daudela esan zuten

Asier Imaz Azpiegiturak

Abiadura Handiko Trenik ez dutela nahi esateko, 300 lagun inguru kalera irten ziren larunbatean, Tolosan. AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, manifestazioa egin zuten Trianguloa plazatik abiatuta. Herri guztia zeharkatu ondoren, martxa Plaza Berrian amaitu zen.

Ekitaldian esanak

EHNERen eta AHTren aurkako banderak gainean zituztela, manifestariet bidea bi traktorek zabaltzen zuten. *Lapurak, xahutzai-leak, txikitzaileak... kanpora AHTrik* Ez jartzen zuten pankartak gidatu zuen martxa. LAB-ek eta gazte independentistek ere euren aldarriak agerian eraman

zizuten, *Langileok ere AHT-ri ez eta Gazteok ez du nahi abiadura handiko etorkizunik* bezalako mezuekin.

Tolosan Kaldereroen Eguna izaki, txarangen musika eta AHTren aurkako oihuak tartekatuz ziren Alde Zaharreko kaleetan. Amaiera ekitaldian, kaltetuek eta Elkarlaneko kideek hitz egin zuten. Proiektuaren aurka zergatik dauden azaldu zuten lehenik: «Urteak pasa dira proiektu honi hasiera eman zitzaionetik, eta azpiegitura basati honen kontrako arrazoiak askotan errepikatu ditugu jada. Badakigu AHTk energia izugarri xahutzen duela; diru publikoaren zati handi batek esku pribatuaren amaituko duela, oinarriko zerbitzu publikoen kaltetan; naturari kalte konpone-



Euripean egin zuten AHTren aurkako manifestazioa Trianguloa plazatik abiatuta. A. IMAZ

zin eragingo dizkiola eta nekazaritza are gehiago itotzen duela elikagai subiranotasuna oztapatuz; ez dituela euskal herritarren garraio beharrak erantzuten; hegazkin batek bezala kutsatzen duela... eta zerrenda honekin denbora luzez jarrai genezake».

Informazio eza salatu ondoren, eskualdean proiektua nola dagoen azaldu zuten jarraian: «Tolosaldean urtebete eskas da erai-tugua jada. Badakigu AHTk energia izugarri xahutzen duela; diru publikoaren zati handi batek esku pribatuaren amaituko duela, oinarriko zerbitzu publikoen kaltetan; naturari kalte konpone-

Tolosa-Hernialde zatiko akten altxamenduak otsaila hasieran burutu ziren eta Tolosako eta Ibarako Udaletan protesta egin zutela gogoratu zuten. Hernialdeko Udalak aldiz, uko egin zion sinatzeari. «Proiektu txikitzaile honen bultzatzaileek ordea, herritarren nahiaren gainetik nahiz hautetsien ezezkoaren gainetik, AHT egin egingo dutela errepikatzen dute behin eta berriz», salatu zuten. Hori bai, euren ustez, «horretarako metodorik errepresiboenak erabiltzerako orduan ez dute zalantzarik egiten».

Abiadura Handiko Trenaren proiektua gelditzeko aukera ez da

ezezkoa kaltetu eta Elkarlaneko kideentzat: «Ezin dugu ahaztu krisiak AHTn eragina izan duela eta, hainbat lekutan obrak geldirik daudela. Orain inoiz baino gehiago, guztiok batera indar egin behar dugu zentzugabekeria hau gelditzeko eta beste garraio eta bizitza eredu bat bultzatzeko. Horregatik, zuten inguruan gai honi buruz informazioa zabaltzera eta hemendik aurrera egongo diren deialdietan aktiboki parte hartzera animatu nahi zaituztegu».

Euripean burutu ziren protesta ekitaldiei, dantzariak eman zuten amaiera.

Txosnak ere herriaren parte direla aldarrikatu dute

Inauterietarako sei egunetako egitarau oparoa antolatu dute Txosna Batzordeko kideek

A. Imaz Inauteriak

Inoiz baino kontzertu, jarduera eta ekitaldi gehiago antolatu dituztela azaldu dute Tolosako Txosna Batzordeko kideek.

Aurtengo Inauterietan, Alondegi plazan egongo da txoznagunea eta honekin ez daude oso gustura: «Azken hiru urteetan gure txokoa Euskal Herria plazan antolatu dugu, baina oraingoan Tolosako Udalak Alondegi plazara baztertuko gaitu, txosnak jai girotik urrunduz».

Honen aurrean, eurek leku finko bat aldarrikatzen dute: «Txosna guneak beharrezkoa du Inauterietan bere toki finkoa eduki-

ztea, eta jaiak eskaintzen dien guztiagatik merezi ere, merezi du. Gure ustez, Euskal Herria plaza da ezbaierik gabe txosnentzat toki aproposena, gerontologiko berria egin den plaza baino askoz egokiagoa baita. Ez gatz bat udal-letxeak honen harira ezartzen dizkigun trabekin eta aitzakiekin, eta gure eskakizuna argia da: Euskal Herria plaza izan dadila Inauterietan txosna gunearen toki finkoa».

«Txosna gune hobereana antolatzen jarraituko dugu kosta ala kosta»

Karpa baten barruan

Txosna gunea karpa baten barruan egongo da Inauterietan.

Sei egunetarako antolatu duten egitaraua begiratzuz gero, haur, gazte nahiz helduek jai giroa topatuko dute bertan.

↓ Egitaraua

OSTEGUNGIZENA

- **12:00.** Txistor jana eta txoznen irekiera.
- **12:30.** Txupinazoa.
- **21:00.** Zagi sagardo/ardoa. *Zuek afaria guk edaria.*

OSTIRALMEHEA

- **18:00.** Txoznen irekiera.
- **21:00.** Txupinazoa eta ondoren, Zagi sagardo/ardoa izango da. *Zuek afaria guk edaria.*
- **23:00.** Dolce Tangana eta

Glaukoma Sound System taldeen kontzertuak.

ZALDUNITA BEZPERA «HAURREN EGUNA»

- **18:00.** Txoznen irekiera eta txokolatada eta marrazki maratona.

ZALDUNITA

- **15:00.** Txoznen irekiera. Giroa alaituz Bonberenea txaranga.
- **22:00.** Segoviako Ihesa, Jos-tion eta Laketen kontzertuak.

ASTELENITA

- **15:00.** Txozna gunearen irekiera.
- **23:00.** Bad Sound Systemen kontzertua.

ASTEARTITA «EMAKUMEON EGUNA»

- **18:00.** Txoznen irekiera.
- **19:00.** Mozorro lehiaketa.
- **21:00.** Afari feminista. «Neskak eta mutilak, denok batera, Martxoak 8 ospatzera». *Egun guztian zehar tragoak 3X2!*

lismoaren alde, independentziaren alde...» jardungo dira. Jai giroa kolore desberdinez marraztuko dute Alondegi plazan.

«Trabak traba», hori azpimarratu nahi izan dute batzordekoek: «Nahiz eta udalak tokiz baz-

tertu eta hainbat laguntza ukatu, ahalik eta txosna gune hobereana antolatzen jarraituko dugu, urte urte eta kosta ala kosta. Azken batean, txosna gunea ezinbestekoa da Tolosako Inauterietan».

Anoeta-Irura



ZARTAGINEN DEIADARRA

Ate joka ditugu Tolosako Inauteriak. Hori iragartzeko, zartaginak astinduz, ostrialean itxoak intzuz ziren barbara, Irurua eta Anoetara. Tolosan beriz, larunbatean ibili ziren. Etzi, Ostegun Goiena izango da eta 12:00etatik aurrera, eztanda egingo du Tolosak. 1. MAI

Gaztelu



GAZTELUTIK ERE BABESA

Pasa den ostiralean, hilaren 25ean, hileko azken ostriala izan zen. Eskualdeko hainbat herritan bezala, euskal preso eta inestarian aldeko elkarmetaratzea egin zuten Gaztelu. Bertan 16 lagun elkartu ziren babesa agertzeko. 1. MAI

Lizartza-Berastegi



MOZORROAK GARBITZEKO GARAIA

Leitza eta Aresokoak pasa ziren. Eta asteburu honetan, batzuek Kalderekoak ospatu dituzten bitartean, Berastegin eta Lizartzan inauteriak ospatu dituzte. Berastegin ostrialean eta larunbatean mozorroto ziren. Lizartzan asteburua mozorrotoa pasa ostean, igandean ere zuten jaien amalera iragartzen duen 9/10a. Haur, gazte eta heldu guztiak parte hartu dute. HITZA E. MAI

Tolosa



TOLOSATIK SAHARAKO MARATOIRA

Bost tolosar ostiral eguerdian abiatu ziren beste 30 bat euskaldunekin batera Tindfeko saharar errefuxiatuen kanpamenduetara (Aljeria). Sahara Marathoni izeneko lasterketan parte hartuko dute. Korrikariak nahiz norbanako edo instituzio desberdinak egindako diru ekarpenak, errefuxiatu kanpamenduetan giza laguntza proiektuetarako erabiltzen dituzte. 1. MAI

Anoeta



DANTZA-SOKA EGUNEAN, HERRI GUZTIA DANTZAN

Larunbatean, Dantza-soka eguna ospatu zuten Anoetan. Goizean goiz elkartu ziren dantzariak eta baserri baserri dantzan ibili ostean, plazan elkartu ziren. Auzreskularia Alazne Ruiz eta atzeskularia Gorka Otxoa izan ziren. Hauek beraien amek egin zieten dantza. Egundako hitzalekin batera, auzo bakoitzean dantzariak guztiak busti baziren ere, umore ona izan zen nagusi. Jarrailan, dantzari guztiak Kuku elkartearen babarrun ja-tea egin zuten. Anatsaldian, herriko hiritarlan laguntzaekin kalejarri ibili ziren. Eta egunari bukaera emateko Itzel taldearekin erromeria izan zuten. Tripa betetzeko, taloak dastatzeko aukera izan zen. BERITZ. MAI

Abaltzisketa



OTAMENDI ETA ZUBELDIA, TXAPELDUN

Seguran jokatu zen Euskal Herriko III. Mus Txapelketako Gipuzkoako finalea eta txapelak, Aherio Otamendi eta Jose Antonio Zubeldia abaltzisketarako izan dira. 32 bikotek lortu dute finale-rako txartela. Ugartetik, Goizone Zubillaga eta Iñaki Amondarain; Ibaratik, Joseba Jauregi eta Iker Gibealde; Euzeliko Oikeren eta Jose Manuel Amuabarrena eta Josu Iparagirre eta Unai Labana; Ikaztegiatik Antonio Maiz eta Joakina Etxarri eta Zizurkildik, Fermin eta Juan Iraola. 1. MAI

Ibarra



LADY GAGAREN DOINUEKIN ENTSEGUAN

Lady Gagaren kanta baten doinua aukeratu du Gipuzkoa Zero Zabor taldeak Zubietako erraustegian luzamendua eskatzeko grabatuko duten flash mobarekin. Bideoa martxoaren 20an grabatu tuko dute Zubietako erremonteko frontoian, eta bertan 2.000 lagun bildu nahi dituzte. Gipuzkoa osoan ibiliko dira koreografia entseazten, eta larunbatean Ibarrean txanda izan zen. BERITZ. MAI

Tolosa



KOFRADIAKIDE BERRIAK

Tolosako Babarrun Kofradiak XXII. Kapituluak ospatu du Ainhoa Alerbe, Juan Mari Aramendi, Casu Matias, Enakume arraunlariek eta Javier Zurutuza ohorezko kofradiakide izendatu ditu. 1. MAI

Hartu aisia BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso 2 lagunentzako RELAX BONO O PARI

EZAUGARRIAK:

- Talasetaria zirkuitua
- Relax masajea
- Igande anatsaldetik ostiral eguerdian erabigarri

Harteman-talaxia: 943-30 43 45 | harpidedun@berria.info

AUXERA EZAZULUZ EUSKALDEAN **berria**

www.tosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago ezagutu gure webgunen berriak

www.ibarra.deia.hitza.info • www.alegiadeia.hitza.info • www.anoetadeia.hitza.info • www.villabona-aiztondo.hitza.info • www.leiztaldeia.hitza.info • www.tolosa.hitza.info

Kirolak

↓ **Emaitzak**

PILOTA

BINAKAKO TXAPELKETA	
Berasaluzer VIII-Apraiz	14
Xala-Barriola	22
Titin III-Pascual	19
Bengoetxea VI.a-P. Ruiz	22

Bigarren maila

Diaz-Iza	16
Jaunarena-Arruti	22
Olazabal-Galarza	14
Rico IV-Argote	22
Gorka-Merino I	22
Olaetxea-Albisu	14

EUSKAL HERRIKO KLUBEN ARTEKO TXAPELETA

Finalak	
Urbietia-Telletea (A-S)	16
Hernani	22
Mujika-Iruretagoiena (A-S)	19
Segurako	22
Asier Agirre (Burlata)	18
Tolosa (Gazteleku)	13
Jaka (Zazpi Iturri)	22
Lasa (Doneztebe)	16
Etxeberrri (Gure Txokoa)	22
Belloso (Aniztasuna)	7

EMAKUMEZKOEN KUTXA SARIA - GOMAZKO PALETA

Finala	
Espinar-Ruiz de Larramendi	19
Etcheleku-Montes	30
3. eta 4. postua	
Muneta-Graciet	23
Caset-Mendizabal	30

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA	
24. jardunaldia	
Pasajes	2
Tolosa	1

Saillkapena

1. Pasajes (53 puntu)
8. Tolosa (35 puntu)

ERREGIONAL PREFERENTEA

22. jardunaldia	
Mutriku	4
Tolosa B	0
Urnieta	1
Intxurre	2

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA	
20. jardunaldia	
Allerru Algeposa	1
Lauburu Ibarra	1

Saillkapena

1. Zierbena (49 puntu)
5. Lauburu Ibarra (32 puntu)

NAZIONAL B MAILA

20. jardunaldia	
Laskorain Ikastola	5
Donostia Zuzen./Naturgas	2
Transportes Lakunza	4
Irish Pub Sheperd's	4

EUSKAL LIGA

Hirukide Tolosala	3
Kukuiaiga Etxebarri	2

🎯 **Hilberriak eta eskertzak**



ESKERTZA

ORAIN GUTXI HIL ZEN



JUAN MARI GARMENDIA AGIRRE

Jauna
 (Goian bego)

Bere senitartekoez benetan eskertzen dizuete samin agurra bidali zenutenei eta baita ere bere hiletara etorri zineten guztioi ere

Belauntzan, 2011ko martxoaren 1a

Bostetik final bakarra irabazi dute eskualdekoek Euskal Herrikoan

Zazpi Iturri elkarteko Jaka lizartarrak txapelak jantzi du jubenetan, eskuz banaka, Lasari 22-16 irabazita

Imanol Garcia

Eskualdekoek bost final jokatu dituzte asteburuan Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketan eta garaipen bakarra lortu dute. Zazpi Iturriko Erik Jaka lizartarrak lortu du txapela jubenetan mailan Doneztebe elkarteko Lasaren aurka 22-16 irabaziz.

Zazpi Iturriko Xalton Zabalak azaldu duenez, gaizki hasi zen partida, Lasak sakea erabili bai-

tzuen mina egiteko. «Asko jo zion Lasak», dio Zabalak. «Gero Jaka asmatzen hasi zen eta 12-9 galtzetik 12-19ra iritsi zen. Lan asko egin behar izan zuen Jakak partida irabazteko». Lizartarrak partida bakar bat galdu gabe eskuratu du txapelketa.

Aurrera-Saiaz elkarteko bi bikote lehiatu ziren finalan. Nagusien ohorezko mailan Urbietak eta Telleteak 22-16 galdu zuten Hernaniko elkarteko aurka. Aurrera Saiazeko Luis Galarragak azaldu duenez, «beroketan ari zela pilota sartu zitzaion Telleteari eta horrek partida baldintzatu zuen». Urbietak lan handia egin zuela dio Galarragak eta 18 urterekin nagusien ohorezko mailako finalean aritzea nabar-

men du. Kadeteetan Mujika eta Iruretagoienak 19-22 galdu zuten Segurako elkarteko aurka. «Ez zuten bere maila eman», esan du Galarragak. «Ez ziren partidatartu. Opari asko egin zituzten eta horrela irabaztea zaila da». Orokorrean gustura azaldu da Luis Galarraga Aurrera Saiaz elkarteko pilotariak egindako txapelketarekin.

Gazteleku elkarteko Tolosa anoetarrak 18-13 galdu zuen Burlatako Agirrearen aurka kadeteen banakako mailan, partida gogor batean. Mikel Beloso tolosarrak ere ez zuen partida erraza izan Etxeberriren aurka nagusien ohorezko mailan. 22-7 galdu zuen Aniztasuna elkartekoak Hazparnekoaren aurka.

Maider Mendizabalek hirugarren postua eskuratu du Kutxa Sarian



Mendizabal eta Caset, ezkerrean, partida hasi aurretik. HITZA

Erredakzioa Anoeta

Maider Mendizabalek eta Caset Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Saria 2011 txapelketaren hirugarren postua lortu zuten, larunbatean Beotibarren jokatuak partidaren 23-30 irabaziz. Txapela Etcheleku-Montes bikoteak jantzi zuen 30-19 garaituz Espinar-Ruiz de Larramendi bikotea.

Mendizabal eta Caset hasieratik aurreratu ziren markagailuan, baina gogotsu aritu behar izan zuten garaipena lortzeko. 250 ikusle inguru bildu eta giro goxoan izan zela diote antolatzaileek.



MARTIN IRAZUSTABARRENA ARMENDARIZ

(Maribi Dorronsororen alarguna)

Atzo hil zen, 54 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Semeak: Jon eta Ainhoa, Axier eta Eztiñu, Iban eta Maider; ezkon ama: Rosario Otamendi (Juan Inazio Dorronsororen alarguna); senideak: Jose eta Anttoni, M^o Dolores eta Julian, Pako eta Txaro, Agustín eta Loli, Kontxi eta Jose Luis, Jesus eta Loli, Pello eta Joxepi, Inazio, Amparito eta Bittor; ezkon senideak: M^o Jesus eta Tomas (†), Alazne eta Jose Angel, Lurdes, Hilario, Meltxor, Arantxa eta Mikel, Kornelio eta Nekane; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaldeek.

Haren arimaren alde otoi bat eskatzen dizuete, eta arren etor zaitezte GAUR, ASTEARTEA arratsaldeko SEIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

ZERAIN, 2011ko martxoaren 1a

Helbidea: Grupo Gurea 2, 2.Ezk.
 Oharra: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da.



MARTIN IRAZUSTABARRENA ARMENDARIZ

(Iban txistulariaren aita)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiakoekin saminarekin

Goruntz Dantza Taldea

GABIRIA, 2011ko martxoaren 1a

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazte da galdu duzuna, baina laguntza eskaintzen dizugu dena erazteko izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOREZKETA

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Anjel Arrospide eta Ugaitz Mugerza Urrezko Aizkolarien Txapelketako saria jasotzen. HITZA

Arrospidek nagusietan lortu ez duen txapela jantzi du Zabaletak gaztetxoenetan

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketan, Arrospidek eta Mugerza II.ak alde handiarekin galdu zuten

M. Ugartemendia

Itxaki Azurmendik eta Aitzol Atutxak irabazi zuten igandean Anjel Arrospideren eta Ugaitz Mugerzaren aurka Azpeitian jokatu zen Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa. Aldiz, Mikel Zabaleta leitzarrek eta Eneko Otañok Gaztetxo mailako txapela eskuratu zuten Eloy Kortxeroren eta Iker Vicenteren aurka jokatu zuten finalean.

Giro bikaina izan zen Azpeitiako Izarraitz pilotalekuan, ehunka ikusle izan baitziren harmailetan. Aizkolariek sei proba egin zituzten. Lehenengo lau probetan

parean ibili ziren bi bikoteak, baina, bi 60 ontzako moztu behar zituzten, bakoitzak bana. Leaburukoari adabegidun egurra tokatu zitzaion, eta arazoak izan zituen lana amaitzeko. Honela, gauzak erabakita gelditu ziren, txapeldunek bi 60 ontzakoak 4 minutu eta 39 segundotan moztu baitzituzten eta 5 minutu eta 20 segundotan, berriaz, Arrospidek eta Mugerza II.ak.

Seigarren proba alde handiarekin iritsi ziren Arriarangoa eta Dimakoa, eta aurkariak, aldiz, nahiko etsita zeuden azken proban. Lehen zuten alde, areagotu egin zuten irabazleek. Beraiek 16 minutu eta 49 segundo behar izan zituzten, eta gipuzkoarrek 18 minutu eta 13 segundo. Guztira txapeldunek 29 minutu eta 19 segundo behar izan zituzten proba guztiak amaitzeko eta Arrospidek eta Mugerza II.ak 31 minutu eta 39 segundo behar izan zituzten pro-

ba guztia amaitzeko. Txapelketa guztian zehar bikain ibili diren arren, ez zuten egunik onena izan gipuzkoarrek eta azkenean desberdintasun handiarekin galdu zuten.

Zabaleta txapeldu

Mikel Zabaletak eta Eneko Otañok erraz irabazi zieten Eloy Kortxerori eta Iker Vicenteri. Leitzarra eta beizamarra proba guztietan nagusi ziren.

Hasiera batean, Eneko Saralegi leitzarra ere finalean aritzekoak zen arren ebakuntza baten ondorioz Kortxero izan zen bere ordekoa. Guztira 11 minutu eta 15 segundo behar izan zituzten leitzarrek eta beizamarrak proba guztiak amaitzeko. Kortxerok eta Vicente II.ak, aldiz, 12 minutu eta 41 segundo behar izan zituzten. Garaipen honekin Gaztetxo mailako txapela eskuratzen lehenak izan dira Zabaleta eta Otaño.

Tolosaldeak marka bikainak lortu ditu Gipuzkoakoan

Tolosaldeko igerilariak urrezko zazpi domina, zilarrezko hamabi eta brontzezko bederatzita lortu dituzte

M. Ugartemendia Tolosaldea

Gipuzkoako Txapelketa jokatu da azken asteetan eta bertan parte hartu du Tolosaldea I. K. T igeriketa taldeak. Gainera, emaitza bikainak lortu zituzten bertan. Izan ere, 7 aldiz lortu zuten Gipuzkoako Txapelduak izatea. 12 zilarrezko domina eta 9 brontzezko ere lortu zituzten.

Infantiletan Tolosaldeko 16 igerilarik parte hartu zuten. Hauetako 5 igerilarik dominak eta guzti lortu zituzten. Jon Ander Perezek

bi urrezko domina lortu zituzten estilo librean eta 100eko estilo askean. Idoia Alonsok zilarrezko domina lortu zuen 100eko estilo askean. Irene Zumarraga ere bigarren gelditu zen 400 estiloan eta Beñat Bidaolak hirugarren postua lortu zuen 200 estiloan. Ane Gonzalez hirugarren gelditu zen 200 bizkarrezkoan. Taldekoan ere 4x100 askean Gipuzkoako Txapeldu izan ziren mutilak. Eta bi zilarrezko eta bi brontzezko domina ere eskuratu zituzten. Junior eta absolutu mailan ere dominak eskuratu zituzten. Eneka Muñagorri hirugarren postuan gelditu zen, 100 estiloan.

Honez gain, laster Tolosaldeko Igeri Kirol Taldeko sei igerilari Mallorcara joango dira Espainiako Txapelketako hainbat probetan parte hartzeko.



Gipuzkoako Txapelketan parte hartu duten igerilariak. HITZA

Nagusitasunez irabazi du Laskorainek etxean jokaturako partida

Aurkari gogorra izan arren, bigarren zatian izan zuten aginteari esker garaipena lortu zuten tolosarrek

M. U. Tolosa

Larunbatean, Usabalgo polikiroldegian jokatu zuen Laskorainek Gernikako Zuzenbide-Naturgas taldearen aurka, eta sufriruta baina nagusitasunarekin irabazi zion 5-2ko emaitzarekin. Aurkaria sailkapeneko postu erosoetan dago kokatuta, eta beraz, talde

arriskutsua izan zuten aurrean tolosarrek. Partidaren lehenengo zatia 2-2ko berdinketarekin amaitu bazen ere, bigarren zatian etxekoek izan zuten agintea. Gilek aurreratu zituen etxekoak Jonikok emandako baloia erosotasunez bultzatuz. Kanpotarrek azken saiakerak egin zituzten arren, Telleria eta Gilen azken golei esker 5-2ko emaitzarekin amaitu zen partida.

Denboraldi bikaina egiten ari dira tolosarrek eta horrela jarraitzea espero dute, gainera. Inauterietan ez dute atsedenk izango horitxoek, datorren larunbatean, Bilbon jokaturako baitute partida.

Irudia ▾ Zizurkil



ZIZURKIL TRINDOOR LEHIAKETATIK KANPO GERATU DA

Trindoor lehiaketatik kanpo geratu dira zizurkildarrak. Larunbatean jokatu zen Trindoor kanporaketa Hondarribi eta Zizurkil artean. Lehia estua eta maila onekoa izan zen. Hondarribi sailkatu zen, aurtengo ekitaldiko hirugarren denborarik onena eginda. Zizurkildarrak, berriaz, kanpoan geratu ziren, nahiz eta bosgarren denborarik onena egin. HITZA



90°
6°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	4°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Urteetan ahaztutakoek omenaldia jaso dute

Hilerrian dago jada 'Errepublikak eta Euskal Herriaren Askatasunaren Alde Hildakoei Monumentua'

Asier Imaz Tolosa

Txalaparta doinuen ondotik, Karlos Linazasoro idazle tolosarrak ireki zuen larunbat goizean *Errepublikak eta Euskal Herriaren Askatasunaren Alde Hildakoei Monumentua* jendaurrean aurkezteko ekitaldia. Olerki bat irakurri zuen eta ondoren, Juantxo Agirre Mauleonek zenbait tolosarren bizipenak biltzen zituen testua irakurri zuen. Bertsolariak ere izan ziren eta baita dantzariak ere.

San Blaseko hilerriko ekitaldia oso jendetsua izan zen eta bertan kolore askotako jendea bildu zen. Guztiek helburu bera zuten, faxismoak sortutako biktimak gogora ekartzea. Bide horretan, beste urratsetako bat izan da hilerrian jarritako eskultura.

Ekitaldian, 36ko gerran eta honen ondorioz hildako tolosarren izenak irakurri zituzten, baita kanpokoak izan arren, Tolosan erail zituztenenak ere. Hunkigarria izan zen eta bukatzeko, eskultura bala zuloak irudikatzen dituzten zuloetan fusilatutako senitarteko eta lagunak krabelin gorriak jarri zituzten.

Ahaztuak-en salaketa

Ekitaldia burutu ondoren, Ahaztuak 1936-1977 elkarteak elkarretaratzea egin zuen hilerri kanporean. Egia eta oroimenarekin batera, frankismoaren biktimek justizia ere merezi dutela aldarrikatzen du elkarte honek. «Jokin Bildarratz Tolosako alkateak azaroan elkartearen bi ekitaldi egiteko udal eraikinak erabilteza debekatu» izana ere salatu nahi izan zuten. «Frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldiak debekatu eta gero, gai honen inguruan Tolosako alkatearen eta udalbatzako kideen hitzak hutsak direla ondorioztatu besterik ezin dezakegu» azaldu zuten Ahaztuak 1936-1977tik.



Herritar ugari bildu ziren hilerriko ekitaldian. A. IMAZ



Karlos Linazasoren olerki bat irakurri zuen eta senitartekoek loreak jarri zituzten eskulturako bala zuloetan. A. IMAZ

Agurrak



Zorionak!

Beñat Argote Altuna (Tolosa). Atzo urtebete, zorionak eta muxu handi bat Berrobiko aitona-amonak eta izeba-osaben partetik.

Agenda

DEIALDIAK

■ **Ibarra.** Ohiko osoko bilkura gaur 09:00etan. Gai hauek jor-ratuko dituzte, besteak beste: TAO udal ordenantzen 9. f) epigrafea txertatzea; Ibarra Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 11JUko lurra saldu eta etxebizitza tasatuak egiteko lanen behin behineko esleipena; Apatta industrialdeko 2. fasera-ko garapenerako arau subsidia-

rioren aldatetari aurkezturiko alegazioei erantzuna; Ezker Batuak alderdiaren mozioa; eta Tolosako osasun zentroan espezialitate kontsulten jarduera eza. ■ **Aduna.** Asvineneak antolatzeko duen V. Poltsiko Lehiaketan izena emateko epea martxoaren 18an amaituko da. Edozein kontsultarako deitu 665 738 081 telefono zenbakira edota idatzi poltsiko.lehiaketa@gmail.com helbidera.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalartea, 1. 943 36 49.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidaliz izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>